

# AEBetako primarioak aldaketa sozialaren sintoma

Orain 10-15 urte periferia kapitalistetako herrialdeetan hazitako aldaketa olatua iritsi da Mendebaldera. Krisi ekonomikoa baino lehen, borroka postmaterialista nagusitu zen. Eztabaida nagusia bizitza estilo eta jarreraren arteko gataskan kokatzen zen. Sinplifikatuz, hezkuntza maila altuko hiriguneetako kultura liberal-aurre-rakoia eta klase tradizionalen kultura kontserbadorearen arteko gataskaz ari gara. Horrela esplikatzeko da Barack Obamak urtean 200.000 dolar baino gehiago irabazten zutenen artean hauteskunde babes handiena lortu izana eta Mitt Roomey hautagai errepublikarrek 50.000 dolarretik behera irabazten zuten langile klase zurikoaren artean.

Bi balore multzo horien artean iparramerikar gizarteak nabigatu ahal izan du, burbuila ekonomiko zenbaitek sortu zuten ilusio faltsuak lagunduta. Errealitatea ordea oso bestelakoa izan da, azkeneko 20 urteetan soldatak eros-ahalmena galtzen joan dira eten-gabe, eta ondorioz, klase arteko distantziak handituz esku gutxi batzuetan kontzentratu da AEBetako aberastasuna. Garai batean Washingtonek horrelako egoerak orekatzen zituen lehen-gai eta merkatu berriak konkistatuz: aberastasunaren banaketan lanaren partaidetza (ehunekotan) txikitu egiten bazen ere, ekonomiaren tarta handitu egiten zenez termino absolutuetan langileek ez zuten galerarik. Baina periferia kapitalistaren autonomizazio prozesuak arazoak sortu dizkie AEBei bere tarta handitzeko, izan ere, munduko ekonomian kontrola eta kuota galtzen ari da. Parte handian, horrek azaltzen du iparramerikarren jarrera hiperaktiboa eta esku-hartzailea nazioartean, maiz estatu kolpeak eta gerrak bultzatzen ditu-eta.

Politika inperialista tratatzearekin eta burbuila guztiak zultatzearekin,



Asier Blas

EHU-KO IRAKASLEA

@AsierBlas

Obamak "amets amerikarraren" ideia berreskuratzeko beharra aldarrikatu zuen krisitik irteteko. Baina ezin zuen funtzionatu. Klase ertainaren ezaugarri politiko nagusia da segurtasun sozioekonomikoa izatearen pertzepzioa eta etorkizunari begira bere seme-alabek patrimonioa heredatu eta handituko dutenaren segurtasuna, horregatik, ez dute beharrik ikusten birbanaketaren aldeko borrokan inplikatzeko

AEBetako barne kontraesanak estutu eta krisiak aurrera egin ahala, oreka guztiak astindu eta zalantzan jarri ditu. Klase haustura, generokoa, belaunaldi-

koa, geografikoa, kulturala eta arrazakoak indartu dira krisiaren erdian. Inperioaren gainbeheraren zauriak oso sakonak eta agerikoak dira. Orain eztabaida ez da Obama eta Tea Party mugimenduaren artean, orain eztabaida Occupy Wall Street eta eskuineko populismoaren artekoa da.

Obamak "amets amerikarraren" ideia berreskuratzeko beharra aldarrikatu zuen krisitik irteteko. Baina, ezin zuen funtzionatu. Klase ertainaren ezaugarri politiko nagusia da segurtasun sozioekonomikoa izatearen pertzepzioa eta etorkizunari begira bere seme-alabek patrimonioa heredatu eta handituko dutenaren segurtasuna, horregatik, ez dute beharrik ikusten birbanaketaren aldeko borrokan inplikatzeko. Egun aldiz, Bigarren Mundu Gerraren osteko eredu hori hautsi da, eta haustura horren interpretazio eta kudeaketarengatik piztu da borroka, ezkerretik Bernie Sanders, eskumatik Donald Trump, eta maila apalagoan Ted Cruz eta Marco Rubio.

Primarioetan outsidersak dira protagonista nagusiak. Europako zenbait herrialdeetan bezala, geroz eta zabalduago dago *stablishment*aren aurkako jarrera. Jendeak *kasta* politikoa baino, konfiantza gehiago du alderdietako aparatuetik kanpo dauden politikariengan. Trumpek ideologiarik gabeko klase borrokaren bandera altxatzen du, Sandersek aldiz, finantza munduaren aurkako diskurtsoa astindu eta ezberdintasun sozioekonomikoak eztabaidaren zentroan jarri ditu. Halere, azken horrek ez du erraz izango. Botere faktikoeak, demokraten aldean dauden super-delegatuek (primarioetan hautatzen ez diren alderdikideak, nagusiki Hillary Clintonen aldekoak), gutxiengoen liderrekin Clintonek duen bezero-harremana eta boto erabilgarriak Bernie Sandersen aurka egiten dute. ■